

ALESSANDRO
BARICCO

Odolik gabe



Idazle hau ez nuen ezagutzen¹. Irakurri diodan lehen liburua, lehen narrazioa da. 80 orri inguru ditu. Beraz, argitalpen apala da, "kantitateari" dagokionez; kalitate aldetik, ordea, gainezka dabil.

Niretzat, narrazio ikusgarri, zirrargarria da. Hipnotizatu egiten zaitu, lehen orritik azkeneraino.

Erakarmen itzela du; imajina ezazue planeta txiki bat, grabitate-indar zinez ahaltsua daukana. Harrapatu egiten zaitu. Eta oso polita, oso ederra da. Zenbait momentutan, Pedro Paramo ekarri dit gogora, sorrarazten duen irrealtasun-sentsazio apartarengatik. Esaterako, narrazioaren bukaera aldean, Titok Ninari esaten dionean:

—Nahi nuke zuk jakitea Pedro Cantos dudala izena.

Bitxia da, eta hau erabat pertsonala da, ziur aski harira ere ez dator, baina "Cantos" abizena hitz oxitonoa izango balitz bezala irakurtzea gustatzen zait, hau da, "o" letrak azentua eramango balu bezala (Cantós).

Egile honen beste hiruzpalau narrazio gehiago irakurtzeko gogoz geratu naiz, baina tira, pentsatzen dut aurrekontuak ez duela gehiagorako ematen, eta zer esanik ez ikusita nolako eragozpenak dauzkaten euskal irakurleek euskarazko itzulpen literarioetara hurbiltzeko orduan (ez dakit zergatik; haiek jakingo dute).

Egileak begi-bistako dilema bat planteatzen du: nola biktimak ere bilaka daitezkeen borrhero. Batez ere tartean umeak daudenean. Hau da, ume horiek biktima bihurtzen direnean. Bi bandoen arteko gerra bat gertatu da, gizateriaren aurkako krimenak izan dira, mendeku-gosea dago,

¹ Liburu-iruzkin hau nire webgunera igo eta gero, Baricco-ren "Zeta" narrazioa Igela bilduman bertan argitaratuta zegoela konturatu naiz. Koldo Bigurik itzuli zuen, 2001. urtean, duela 20 urte alegia. Ikusten duzue, gizakion oroimena —edo nirea, behintzat— oso hauskorra izan daiteke.

indarkeriazko espiral bat dago —haur txiki batzuk bete-betean kolpatzen dituen—... Eta jarraian, kontramendekua dator, bihotz-zimikoak datoz, mingostasuna (iragana aldatu ezin izanagatik), eta nola ez, urteen halabeharrezko joan-etorria, horrek berekin dakarren guztiarekin: gertaerekiko urruntasuna; jarrera lasaiago, hotzago eta inpartzialago bat gertatu zenari buruz; etsipena eta nor bere buruari ziria sartzea...

Bestalde, Bariccok gauzak muturreraino eramaten ditu, irakurlea hunkitzen duen erabat "suntsitzailea" den efektu bat erdiesten du, batzuekiko eta besteekiko sinpatia sentitzeko ahalmena (irakurlearen ahalmena) ezerezean utziz. Pertsonaia bakoitzaren "errealitatean" sartzean, pertsonaia guztien gizatasuna zeure egin eta haien arrazoiak ulertu ahal izango bazenitu bezala da. Hau da, ez duzu epaitzen; gertaeren hariari jarraitzea mugatzen zara.

Pertsonaia asko ez dira. Alde batetik, Manuel Roca sendagilea daukagu ("La Hiena" izengoitiaz ezaguna); Nina (= Dulce = Doña Sol) eta honen neba (narrazioan ez du izenik); beste alde batetik, Salinas, El Gurre eta Tito (= Pedro Cantos) daude, hirurak mendeku gosez etorriak Manuel Rocaren bila (hala ere, Manuel Rocaren iragan ankerra kontuan hartuta, "justizia bila" etorriak direla esan liteke).

Beste pertsonaia batzuk badaude, besteak beste, Ricardo Uribe —Nina bere etxean jaso zuen botikaria—; Torrelavide Kondea dago, Ninarekin ezkondua (Ninak 14 edo 16 urte zituenean) eta hiru seme-alaba eman zizkiona (Nina hil ez zezaten egin omen zuen, Nina bere aitaren eta nebaren erailketaren lekuko izan baitzen).

Garrantzi txikiagoko beste pertsonaia batzuk ere badaude, bilbean nolabaiteko zeregina betetzen dutenak; adibidez, "El Blanco" (haren anaiak "La Hiena"ren ankerkeria jasan zuen), Astarte medikua (Manuel Rocaren bandokoa), Carlos (Doña Sol-en seme nagusia; hartaz aipamen bat baino ez da egiten, baina aipamen hau oso lotuta dago oroitzapen esanguratsu batekin eta Ninaren egungo egoerarekin...).

Eta azkenik, izenik gabeko pertsonaiak daude (Ninaren nebaz gain): kafetegiko zerbitzaria, barrako emakumea, kafetegiko bezeroak, hoteleko harreragilea... Pertsonaia bakan batzuk baino ez dira, eta pertsonaia

nagusien mundu aski irrealen azaltzen dira halabeharrez, haien tragedia pertsonalak sumatu ere egin gabe.

Eta, gaia aldatuz, Igelaren azken argitalpen honetan bildumaren diseinua aldatu dute. Igelak orain arte argitaratu dituen 60 aleak ditut. Eta aldaketa honek pena pittin bat eman dit, ze liburua dagokion lekuan jartzen duzu eta diseinu-aldaketa oso deigarria da, ohiko neurriak gorde baditu ere, hau da, liburuaren altuera lehengo berbera da; alearen zenbakia, ordea, pittin bat beherago geratzen da liburuaren bizkarrean. Baina, bueno, hau anekdota gisa baino ez dut aipatzen. Igela bildumako lehen alea plazaratu zutenetik 31 urte igaro dira, eta normala da diseinua berri nahi izatea. Egia esan, bilduma osoa daukagun lau katuok ziur aski izango gara diseinu-aldaketa hau penaz ikusi dugun bakarrak; gainerakoan, ez du aparteko garrantzirik. Gainera, diseinu polita da; bestelakoa, baina ondo dago.

Eta besterik ez. Alessandro Bariccoren narrazio gehiago argitaratzen animatuko ahal dira! Zeren, narrazio guztiak izango balira irakurri berri dudana bezain onak, egile honek ondo irabazita izango luke bere lekua italierazko literaturan eta literatura unibertsalean. Irakurketa ona izan!

Ahaztu egin zait gauza bat aipatzea. Interneten, egileari buruzko bilaketa bat egin nuenean, hartaz zerbait jakiteko, erreseinaren batean esaten zen zenbait kritikarik ez diotela oso harrera ona egin Alessandro Bariccori, erabiltzen duen estiloa "errazegia" iruditzen zaielako. Bueno, batzuetan liburu on bat idazteko ez da beharrezkoa irakurleak erretorika "barrokoekin" txundituta uztea-edo; batzuetan, prosa itxuraz "xume" batek emaitza literario ona lor dezake; eta alderantziz, prosa korapilatsu batek irakurleak erabat asper ditzake. Azken finean, narrazio on baten sekretua ez datza idazkeran soil-soilik; beste alderdi batzuk ere baloratzekoak dira. Idazle batzuk, esaterako, narrazioaren alderdi formalekin hain itsututa daude, ezen, azkenean ahaztu egiten baitzaie zerbait narratzea... Baina hori ez da Alessandro Bariccoren kasua, ez horixe.